


Arrasate

P R E S

1997ko urriak 3 / 378. zenb.



Maritxu Kajoi 97

VALENTIN

JAPAN

Olaya's

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILABERT

Ondo pasau Maritxu Kajoi egunean!

Ipek Denda



Iturriotz, 19 Herriko Plaza
ARRASATE

FUGAZI

Iturriotz kalea, 7 bis
ARRASATE
Tel.: 77 12 71

Marka hauek hemen bakarrik aurkituko dituzu!



Fornarina

AUPA MARITXU!!!



Zein dotoreago!

Heldu zaigu eguna. Urtean behin izaten da Maritxu Kajoi eta pena merezi du egun hori ondo aprobetxatu eta ospatzea.

Egun hau, edo hobeto esanda, gau hau, berezi berezia da arrasatear guztiontzat. Arratsalde partean koadrilarekin bildu, txikiteo giroan aurtengo miraria zein den ezagutu, afari eder batekin gozatu, parranda gau luzeari hasiera eman, eta nola ez, goizaldera ondo gosalduta eta egunkaria erosi ondoren etxerako bidea hartu.

Maritxu Kajoi egunak ez du adinik. Urtean zehar izaten diren beste herriko



Rosa Mondragon

jaietan, bai ikusten dira, batez ere gaez, gazte gehiago kaleetan, baina ez Maritxu gauean, gazte zein heldu, denok identifikatzen gara jai honekin.

Baina, bertakoentzat jai eguna bada, gero eta gehiago inguruko herrietakoentzat. Izan ere, jende ugari hurbiltzen da egun honetan Arrasatera. Eta ez bakarrik

Aretxabaleta, Bergara, Aramaio, Eskoriatza eta inguruko beste herrietatik, estatuko beste hainbat herrialdetan ere oso famatua ari da bihurtzen Maritxu Kajoi eta aurten ere, seguruenik, etorriko zaigu kataluniar, galiziar edo maño koadrilaren bat.

Hori bai, datorrenak

jakin dezala alde aurretik jantzi dotorea behar beharrezkoa dela. Zentzu honetan, mutilek erraz dute, aitaren edo norberaren ezkontza eguneko trajea jantziz gero nahikoa da. Emakumezkoon kasuan, gauzak gero eta gehiago konplikatzen ari dira. Maritxu Kajoi eguna sortu zenean, gure amaren edo amamaren soinekoak izaten ziren kalean ikusten zirenak. Gaur egun, aldaketa nabarmena igartzen da eta trajeen estiloa erabat aldatuz doa. Emakume gehienak aurrez erositako trajea edo neurritz eginiko soinekoa jantziko dugu. Momentu honetan Maritxuko gaua elegantziaren gaua da, dudarik gabe.

Guzti hori alde batera utzita: ondo pasau eta gogoratu urtean behin ospatzen dugula Maritxu. ■

“Momentu honetan Maritxuko gaua elegantziaren gauda da, dudarik gabe”



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak), Oñatorra kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-do Kortabarria. **Kazetariak:** Ibaro Zubillaga, Marian Porcel, Patxi Montero. **Publikatzailea:** Kaittin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreuria, Juan Luis Azkarate, Aitor Ordoibenga, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatuta. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian auzeriztatutako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko ilustrazioa: Kaiet Laskurain



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

378. zenbaki honetan

1997ko urriaren 3an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen ..	12/13	Kulturaren txokoa	26
Inkesta.....	7	Txutxumutxuak	14	Aurrez aurre	30/31
Euren ikuspuntutik	8	Asteko gaia	15/22	Azoka plaza	32/33
Astearen erreposoa	11	Kirolak jokoan	24/25	Ikusi eta entzun	34

<i>Ikuspegia</i>	
Rosa Mondragon	3
<i>Iritzia</i>	
Anuska Ezkurra	8
<i>Kulturaren txokoa</i>	
Bad f-Line musika taldea	26
<i>30 galderetan</i>	
Enrike Arana	29
<i>Aurrez aurre</i>	
Miriam Urkia	30/31
<i>Asteko gaia</i>	
Maritxu Kajoi 97	15/22



Maritxu Kajoi, dotoreziaren eta txikiteroen jai. Aldatu dexte aldatu da, barruko orrialdeetan argi ikus ahal izango duzuenez.

3

ostirala

■ **GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA**

Bedoñan eguerdiko 12etan.

■ **UNTZILAKO JAIAK**

Gaueko 9.30etan auzo afaria. Ondoren trikitilariak eta bertsolariak: Lizaso, Egaña eta Mañukorta.

■ **MARITXU KAJOI**

4

larunbata

■ **ZINEA**

El secreto de los Abbott.
Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ **UNTZILAKO JAIAK**

Eguerdiko 12.30etan meza. 5.30etan umeendako jolasak. Gaueko 10.30etan *Lontxo* taldearekin dantzaldia. 11etan XVI. bolo txapelketa.

5

igandea

■ **ZINEA**

El secreto de los Abbott.
Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Ibilbidea: Arrasate, Arlaban gaina, Landa, Mendibil, Gamarra, Landa eta Arrasate, 68 kilometro. Irteera goizeko 9.30etan Monterrondik.

■ **KILOMETROAK 97 PASAIAN**

AEDk autobusa antolatuta du. Irteera goizeko 9etan Garaibatik. Itzulera arratsaldeko 8etan.

■ **AL ANDALUS -EN BATZARRA**

Euskadiko andaluziar elkarteen federakuntzak batzar orokorra egingo du Arrasaten. Batzarra goizeko 11etan.

■ **UNTZILAKO JAIAK**

Eguerdiko 12etan meza eta ondoren erromeria *Gardokirekin*.

■ **IBILALDI NEURTUA ARAMAION**

Orixol mendi taldeak ibilaldi neurtua antolatuta du. Irteera goizeko 7.30etan Aramaioko plazatik.

6

astelehena

■ **ZINEA**

El secreto de los Abbott.
Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **MANIFESTAZIOA HBko MAHAI NAZIONALAREN EPAIKETAREN AURKA**

Demokraziaio Euskal Herriarentzat eta Askatasuna lemapean manifestazioa arratsaldeko 7etan Seberon hasita, Mahai Nazionalari elkartasuna adierazteko. Arrasateko Herri Batasunak antolatuta.

MARITXU KAJOI EGITARAUA

Arratsaldeko 6etan: Auskalo taldearekin animazioa Herriko plazan.

7.30etan: Oria txarangarekin kalejira.

8etan: Maritxu omenaldia.

11.30etan: Txinpartarekin dantzaldia Seberon.

12etan: Drindots taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

Goizeko 6etan: Maalako kulero eta kontzontzilo lasterketa.

Goizeko 7etan: Txoznetan salda beroa.

**MARITXU EGUNA
ELEGANTE PASATZEKO...**



Iturriotz, 12 • ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

7 asteartea

■ **ZINEA**

El secreto de los Abott.
Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

9 osteguna

■ **ZINEA**

Airbag. Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ **ZINE KLUBA**

"Johns" Zuzendaria: Scott Silver. Iraupena 98 min. Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera: 400 pta. eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

■ **UDALATX EGUNA**
Urriaren 12an Pilarreko amaren egunean Udalatx eguna ospatuko da. Goizeko 11etan meza izango da eta hildako mendizaleak izango dira gogoan.

■ **EUSKO ALKARTASUNAREN OHARRA**

Urriaren 11n Arrasateko Eusko Alkartasunaren XI. urteurrena dela eta, meza antolatu dute San Frantzisko Elizan. Ondoren 2.30ak aldera bazkaria Alkartetxean. Interesatuak Alkartetxetik pasa daitezela edo 79 64 53 zenbakira deitu.

■ **OINARRIZKO ELEKTRIZITATE IKASTAROA**

Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentroak oinarrizko elektrizitate ikastaroa antolatu du. 6 orduko iraupena. Klaseak asteartetan goizeko 9.30etatik 11.30ak arte eta ostegunetan arratsaldez 6.30etatik 8.30ak arte emango dira. Izene-matea lokalean edo 79 04 59 zenbakira deituta.

■ **EKINEK ANTOLATUTAKO IKASTAROA**

Saloi dantza ikastaroa urriaren 6tik aurrera astelehenetan arratsaldeko 3.15etatik 5.15ak arte. Emalea: Natalio Maiztegi. Eskulanean ikastaroa urriaren 7an hasita, asteartero arratsaldeko 3.30etatik 5.30ak arte eta 6etatik 8ak arte. Emalea Mila Akizu. Sukaldaritza urriaren 8tik aurrera, asteazkenero 3.30etatik 5.30ak arte. Emalea: Juan Carlos Mugarza. Ikastaro guztiak AEDko lokalean izango dira. Informazio gehiagorako deitu 77 12 28 zenbakira.

■ **GOLF IKASTAROA**

Klaseak urriaren 18an, 25ean eta azaroaren 8an Musakolako kiroldegian, eta azaroaren 15ean eta 16an Urturiko golf zelaian emango dira. Prezioa 10.000 pta. Deba Garaiko edozein kirol zerbitzuko bazkideentzat eta 12.500 pta. bazkide ez direnentzat. 14 urtetik gorakoentzat antolatuta. Informazio gehiagorako deitu 77 16 77 zenbakira edo zuzendu

Musakolako kiroldegira.

■ **SEXUALITATE ZERBITZUA**

Urritik aurrera sexualitate zerbitzua zabalduko da berriro. Bulego orduak astelehenetan 6etatik 8ak arte eta ostegunetan 3.30etatik 5.30ak arte. Lokala Garibai Etxean, Gazte Bulegoaren gaineko solairuan dago. Informazio gehiagorako deitu 79 80 10 zenbakira.

■ **YOGA IKASTAROA**

Hasierako yoga ikastaroa urriaren 13tik abenduaren 3a arte astelehenero eta asteazkenero. Klaseak goizez, arratsaldez eta gauzez emango dira. Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta. Informazio gehiagorako deitu (79 66 98 M^a Antonia) edo (79 35 76 Jose Luis).

■ **AUTOBUSA BILBOKO MANIFESTAZIORAKO**

Urriaren 12an Herri Batasunak deituta egingo den manifestaziora joateko autobus txartelak Iratin egongo dira salgai. Autobusaren irteera eguerdiko 12etan Gaibaitik.

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5
TEL.: 79 20 52
ARRASATE

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA!



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 3**
 • Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
 • Gauez: Mozos. Bergara.
- Larunbata 4**
 • Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.
 • Gauez: Camacho. Bergara.
- Igandea 5**
 • Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
 • Gauez: Camacho. Bergara.
- Astelehena 6**
 • Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.
 • Gauez: Puy. Bergara.
- Asteartea 7**
 • Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.
 • Gauez: Guallar. Bergara.
- Asteazkena 8**
 • Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
 • Gauez: Guallar. Bergara.
- Osteguna 9**
 • Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina.
 • Gauez: Mozos. Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 78 71 57
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larnaldiak) 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 77 03 46
 • Espezialitateak 77 05 78
 77 12 64
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 79 12 22
 PESA 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterongo liburutegia**
 Monterron 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 79 58 77

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

La bi urte dira "Euskal Presoak Euskal Herrira" lemapean aste beteko gose grebak egiten ari direla. Bertan mota guztietako taldeek parte hartzen dute (kulturalak, kirolariak, langileak, e.a....).

Aste beteko gose greba hauek hamabost bat pertsonak osaturiko taldeak burutzen dituzte. Egun horietan informazio lan desberdinak egiten dituzte eta, batez ere, talde bakoitzaren ingurukoak sensibilizatzean datza. Irailaren 27tik urriaren 4ra, 95. txanda, Gipuzkoako Aldundiko Suhiltzaileak hartu dugu erreleboa.

Geure gain hartu dugu estatu osoko espetxeetan, beraien etxetik ehundaka kilometrora kartzeleratuta aurkitzen diren ehundaka pertsonen egoera estatuko suhiltzaile guztiei helaraztea. Pertsona hauen egoera gogorki kondentzen dugu kon-tuan harturik Konstituzioak gertaera hau ilegaltzat jotzen duela.

- Presoen bateratzearen alde.

- Gaitz sendaezinak dituztenen kaleratzea.

- Zigorren 3/4a bete-ta duten presoek askatasuna.

Agur bero bat, besarkada batez.


Gipuzkoako Aldundiko Suhiltzaileak

"Gida 98" prestatzen

"Gida 98" abian da dagoeneko, eta lan horretan dabilena 25 urteko arrasatear bat: Irantzu Lopez de Bergara.

ETEOn lehenik eta Sarrikon gero, Irantzuk enpresa zientzietako ikasketak egin ditu.

Gidaren betebeharrak direla eta orain arte, Aretxabaleta aldean ibili da Irantzu, baina, laister Eskoriatzan, Gatzagan eta Arrasaten ikusi ahal izango duzue, karpeta hartu eta gora eta behera. Harrera ona egiozue mesedez, ondo jatorra da eta!



UGARAN jatetxea
 Garagartza auzoa
 Tfnoa: 79 76 58
 ARRASATE

Memesa
 79 42 22

Sili Sili
 Martxa eta estilo handiko erropa
 Iturriotz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 79 81 82

Diru asko gastatzen duzu Maritxu Kajoi egunean?



Josune Biain
(30 urte)
Langilea

Maritxu egunean ez naiz Arrasaten egongo, beraz ez dut dirurik gastatuko.



Jose Luis Martin
34 urte
irakaslea

Jende guztiak gastatzen duena: larregi. Edaten, afaltzen, edozer gauzetan joaten zaizu dirua.



Lorea Milan
(13 urte)
Ikaslea

Ez naiz dotore jantziko eta gominoletan gastatuko dut diru apurra.



Juan Jimenez
(37 urte)
Langilea

Lehenasko gastatzen nuen; orain alabekin ematen dugu bueltatxo bat, baina goiz joaten gara etxera.



Mari Karmen Urrea
(46 urte)
Langilea

Jantzia aspaldi egin nuen eta hura jazten dut. Afarian eta poteoan gastatzen dut dirua, baina ez asko. Lau mila peze-ta inguru irtetzen zait gaua.



Oskar Ramos
(22 urte)
Ikaslea

Bai nahikoa gastatzen dut, gehienbat afarian eta edaten. Jantzia, urterokoarekin nahikoa izaten da.



Eneritz Iturbe
(25 urte)
Langilea

Normala gastatzen dut; afaria eta pote batzuk. Goiz joaten naiz etxera ume txikia dudalako. Jantzietan ere ez dut gastatzen, lagunen artean aldatzen ditugulako.




Josu Sala
(44 urte)
Langilea

Maritxutan lehen irtetzen nintzen baina orain semeak dira irtetzen direnak. Paga ematea tokatzen zait orain.

GOIZ-ALDE

GOZARIAK, PLATER
KONBINATUAK ETA
MERIXENDAK

Iturriotz, 33 • Tel.: 79 11 15



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 79 13 78

Sexualitate Zerbitzua

Urritik aurrera berriro ere zuekin

Sexualitateari buruz dituzun
kezkak, galderak, interesak,
proposamenak eta abar
atenditzeko

ASTELEHENetan, 6etatik 8etara
eta **OSTEGUNetan** 3.30etatik 5.30etara
(Garibai etxean, Gazte Bulegoaren gaineko solairuan)

**Nahi baduzu etorri bakarrik edo lagunekin
edo bikotearekin, baina, nahi baduzu etorri!
edo 79 80 10 telefonora deitu**



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■
Emakume Saila ■
■

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

ALTZARIAK DEKORAZIOA

AROZTEGIA



San Juan, 1 (Gasolindegia-aren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxe: 76 54 91

BERGARA PIEL



**Udazken-neguko
bilduma berria
ezagutzeko aukera.
Zatoz!**

**Kalitate hobereana
prezio onenean!**

Espaloia, 6 • BERGARA • Tel.: 76 20 70

QUIKSILVER

The Boardriding Co.



Bertrand Denervaud

Frank Sorein



Sti

KILLER LOOP®



ARRASATE

KIROLAK

Kontzeziño, 8
ARRASATE
Tel.: 79 46 12
Faxa: 77 05 30



accessories

Kirol bakoitzerako erantzun bat.

astea bi hitzetan

■ **Ertzantzak manifestaldia sakabanatu**

Bilbon gertatutako hilketak eta atxiloketak salatzeke hiru manifestaldi egin ziren pasa den astean. Asteazken iluntzean, nahiz eta Ertzantzak oso gertutik jarraitu, ez zen ezer gertatu. Ostegunean greba egin zuten ikasleek, eta manifestazioa eguerdian, istilu barik bukatu zena. Iluntzean, hirugarren manifestazioa. Arbolapetara iritsi zenean, gertu gertutik eta estu estu jarraitzen zuten ertzainek kargatu egin zuten. Kargaren ondorioz, hainbat zauritu; tartean, bat larri, giltzurruna galtzeko arriskua aipatu zen hasieran. Astean bere egoerak onera egin du eta atzorako etxean zegoen.

■ **Gudari Eguna larunbatean**

Gudari Eguna zela eta, mani-

festazioa eta omenaldia egin ziren larunbat arratsaldean. Portaloitik atera ondoren, manifestazioa Aldaiko kanposantura joan zen lehenik, Garibaiko geltokira gero, eta San Andres aldera beranduago. Aipatu tokietan, lore eskaintza egin zen, Eusko Gudariak abesten zen bitartean. Herriko plazan bukatu zen, omenaldi ekitaldi bat egin eta gero. Ertzantzaren presentzia nabarmena zenez, adierazpen eskubidearen aldeko oihuak entzun ziren behin baino gehiagotan.

■ **Plenoan mozio alternatiboa bozkatu**

HBko Mahai Nazionalaren epaiketa dela eta, Adierazpen Askatasunaren aldeko Kideen mozioa aurkeztu zen astelehen goizeko udal plenoan. Ez zen onartu. Mozio horren aurrean, alternatibo

bat aurkeztu zuen EAK, puntuz puntu bozkatu zena. Puntu bakarra onartu zen, Euskal Herriaren eta estatuaren artean dagoen gatazka konpontzeko, elkarrizketa eta bide demokratikoak erabili behar direla dioena. HBk, EAJk eta EAK eman zuten aldeko botoa.

Gainontzeko 9 gaien artean aipatzekoa da, zortzi aho batez onartu zirela, tartean Bake Epaitegian jarri den ate blindatuaren gastuak ordaintzeko dirulaguntza eskatzea Jaurlaritzari, eta 1996ko ekitaldiaren kontu orokorraren onarpena. Modu berean, orain arte bake epaitegia egon den lokala enkantera ateratzea erabaki zen. Enkanterako gutxieneko prezioa ere jarri zitzaion Bake Epaitegi izandako lokalari: 11.279.493 pta. Erosi nahi duenak hortik gora ordaindu beharko du.

Mankomunitatearen baztordeetarako eta Arrasate Musikalerako ordezkarien izendapenen aurka agertu ziren HB eta EB, eta ikastetxeetarako ordezkartzaren gaia mahai gainean utzi zen.

■ **Ihardun multimediaren inauguraketa**

Eskoriatzako Irakasle Eskolatik sortutako Ihardun multimedia enpresaren inauguraketa egin zen astelehen arratsaldean. Ekitaldian enpresaren ordezkariet gain, Irakasle Eskolako zuzendariak, Jesus Garmendiak, MCCko presidentek, Antonio Cancelok, eta Gatzagako alkateak, Eugenio Otxoak hartu zuten parte. Enpresaren helburua hezkuntzan, formazioan eta komunikazioan erabil daitezkeen CDrom-ak eta bideoak egitea.



EBZaren INAUGURAKETA

Zerrajerako eraikin zaharrean kokatuta dagoen EBZ-Saiolanen inauguraketa ekitaldia egin zen pasa den ostegunean. Roman Sodupe Gipuzkoako Aldun Nagusia, Javier Retegi Industria Sailburua eta Jose Mari Loiti alkatea inaugurazioaren hitzurrean mahaiaren inguruan jarri ziren, aurrean enpresa munduko hainbat agintari. Eraikuntza berria lehengo Zerrajera zaharrean kokatzearen esanahiaz aritu ziren mahaiaren inguruan bildutakoak. Artaziak hartu eta bakoitzak zati bana ebakita, inauguratuta geratu zen EBZ-Saiolan berria.

**ESKIÑA
taberna**

Ondo ibili Maritxu Kajoi egunean!
Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 20 20



Josgintza industrialala ikasi, eta gero enpresa jartzeko aukera Lantegi Eskolan

Josgintza industrialaren aukera du nobedade aurten Lantegi Eskolak; igeltseritza, arozigintza eta elektrizitatearekin batera ikastetxearen eskaintza osatuz. Nobedade eta arazo aldi berean, orain arte ez delako ikasle talderik osatzea lortu.

Josgintza industrialaren aukera, estatu osoko Lantegi Eskolen artean, bakarrik Arrasaten eskaintzen da. Ikasketa horiek sortzearen ideia, eskola uzten duten emakumezkoen lanbide berri bat eskaintzean datza, ofizioa ikasi eta gero-josgintza industrialean arituko den enpresa bat osatzea posible ikusten da eta. Plana honako hau izango litzateke: bi urte lanbidea ikasten, beste bi EEBn, enpresa hola osatu eta eraman ikasten, eta laugarren urterako enpresa martxan. Teoria aurreko guztia, ikaslerik ez badago praktika-raman ezin delako.

133 deialdi pertsonal egin zituen INEM erakundeak,



Josteko makinatxoa utzi eta enpresa montatzeko aukera Lantegi Eskolan.

Deba Garaian langabezia egoeran dauden 17 eta 23 urteko emakumezkoen artean. Deialdi pertsonal horietan Lantegi Eskolara etorri eta asmoak ezagutzeko gonbidapena egingen zen. 57 emakumezko erantzun zion gonbidapenari. Behin asmoak entzun eta gero, hitzaldian izandako 57 emakumezkoetatik bakarrik 13k eman zuen izena Josgintza

Industrialean hasteko. Orain sarrera azterketa eta aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute Lantegi Eskolan sartu ahal izateko. Gainditzen badute osatuko da taldea, bestela ez.

GAINONTZEAN GAIZKI ERE EZ

Lantegi Eskolaren gainerako eskaintzetan erantzunak ez


dira hain eskasak izan. Guztira 201 gonbidapen bidali ziren, gonbidapenei 105 lagunek erantzun zieten, eta eskolara sartzeko asmoa 45 lagunek azaldu zuten.

Beraz, gizonetzkoen zein emakumezkoen sarrera eskaerak kontuan hartuta, guztira 58 eskari daude. Esan beharrekoa da asko jota 50 ikasle jaso ditzakela Lantegi Eskolak, 12-13 laguneko taldetan banatuta. Ikusten denez kopuru horretara iritsi iritsi dira, baina justu samar, batez ere josgintza industrialaren kasuan.

Azaroaren 3a arte Lantegi Eskolara joan, ezagutu eta interesa izanez gero, izena emateko aukera zabalik dago. Eta aurreko urteetako datuei begirada bat emanda, esan daiteke Lantegi Eskolaren aukera ez dela egon daitekeen txarrenetarikoa. Adibide bat: aurreko programa osatu zuten 56 lagunetatik, 36k lana aurkitu zuten.

OKORETEGI

KAFETEGIA



Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tel.: 77 03 62

Aupa
Maritxu
Aupa
Arrasate!

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 79 31 99 ARRASATE



Beste lau enpresa euskararen erabilera bultzatzeko planetan

Enpresatan euskararen erabilera planei ekiteko dirulaguntzak eman ditu Eusko Jaurlaritzak. Horien artean hemengo lau: Alecop, Fagor Elektratresnak, Fagor Sistemak eta JMA. ELIE kooperatibak, lan mundua euskalduntzeko Elhuyarrek eta Irakasle Eskolak osatutako enpresak, eramango du aurrera euskararen erabilera planen gestioa.

Orain arte inguruko hainbat enpresatan burutu dira edo burutzen ari dira horrelako planak. Arrasateko kasuan, MCCn eta Ikerlanen. Esperientzia aprobetxatuz, ildo beretik antolatuko dira seguraski goian aipatutako lau enpresendako planak.

Bideragarritasun txostenak egin beharko dira planei eutsi baino lehen. Egoera aztertu eta gero, lantegi bakoitzari egokitzen zaion plangintza zehatza diseinatuko da eta enpresetan aurkeztu. Onarpena lortzen bada datorren urtean



Fagor Elektratresnak, euskara planean sartuko den enpresetariko bat.

planei ekingo zaie. Plangintzak enpresa bakoitzaren egoerara egokituko dira. Horren arabera antolatuko da praktika. Batzuetan monitorea beharko dira egunero solasaldien euskalduntzea lortzeko, besteetan klaseak eman edo komunikazio zirkuluak antolatuko dira. Lan guztiak helburu bakarra du: lan munduan euskararen erabilera gehitzea, ahozko harremanetan eta idatzizkoetan.



"Enpresa hauen gehikuntzarekin dagoeneko euskara planaren fase ezberdinetan dauden hamabi enpresa daude. Horietatik, zortzi ingurukoak dira. Datorren urterako, kopuru hori bikoiztea espero dugu".

Jose Ramon Elortza,
Euskalan elkarteko presidentea

Txakolinik ez Arrasaten

Arrasateko bi baserrian, helburu salmenta dutela, txakolina egiten da, Kataide eta Otxia izenez saltzen dena. Hala ere, saltzeko orduan ezin izango da txakoli izenik erabili. Udalak Aldunditik jaso duen ohar batek dioenez, txakoli izena, bakarrik Aia, Zarautz edo Getarian ekoizten den ardoari jarri dakioko.

Aukera programarako dirulaguntza

Emakume sailaren proposamenez, asteleheneko gobernu batzordeak Aukera izeneko programarendako dirulaguntza ematea erabaki zuen: 500.000 pezetakoa. Aukera programak etxeko lanak eta ardurak gizonetzkoen eta emakumezkoen artean banatzearen alde egingo du.

Bestetik Hartin aldizkariaren bigarren zenbakiak ere dirulaguntza izango du: 174.000 pezeta.

Gora Maritxu Kajoi!

AMI OINETAKOAK

oinetakoaren autozerbitzua

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

Baster-alde

Jatetxea


Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: (943) 79 24 58

BEGIRA, BEGIRA MARITXU!

Txikitatik ikasi behar nor den Maritxu Kajo. Mutikote hau Maritxu egunean txikito batzuk hartzeko gazteegia da oraindik baina, gurasoen baimenarekin, bederatziru-renean egon zen. Horrelako jarraitzaileekin, pozik sentituko da Maritxu!



GARAGARTZAKO JOKUZALEAK

Loteria tokatu zaiela ematen badu ere, garagartzar hauen postazunaren arrazoia beste bat da. San Migeletan mus eta briska txapelketak antolatu, eta are-rio gogorak gainditu eta gero, geratu ziren finalista. Garaileen zoramena!

Aldamenean duguna Juan Karlos Ugarte txantxikuarra da. San Migeletan antolatutako zozketaren irabazlea izan da. Garagartzako label produktuen banasta ederra eramango du etxera. Eta zer egiten zuen txantxikuar batek Garagartzako San Migeletan?



ALDERDI EGUNA

Ohiturari eutsiz Arrasateko alderdi jeltzaleak txozna jarri zuen Salburuan. Bazkarian, 300 lagunetik gora elkartu zen aurtengo zitan. Esaten dutenez, bapo eginda irten ziren.

Rent a Car
Alkilerreko autoak:
Twingo, Clio, Mégane,
Laguna, Espace...

Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

MECA

SAN MIGEL BERRIRO ETXEAN

Garagartzarrek San Migelen XVI. mendeko erretaularen edertasunaz eta sekulako luntxaz gozatu zuten joandako domekan. Patroiaren itzulera zela eta, erretaularen berriazpenerako laguntza eskaini zuten guztiendako meza berezia eta luntxa izan ziren.

Maritxu

PRESS

Maritxu Kajoi
Eguna
1997ko
Urriak 3

Maritxu
Kajoiaren
azken
15 urteak

Nola aldatzen
diren gauzak...



Maritxu Kajoi. 1982. urtea.

Nola aldatzen diren gauzak...

izan ere, urte dezente bete ditu Maritxu Kajoi jaiak (21 zehatz esateko), eta jaiak, oinarrian berdina bada ere, ikaragarri aldatu da.

Lehen urte haietan jaietan parte hartzeko, eta ondo parte hartzeko

gainera!, gorbata simple bat janztearekin eta txikiteo eder bat egitearekin nahikoa zen. Mozorrotzea ere, ez zen arraroa, eta aukeran jende askok aukeratzen zuten mozorroa.

Urteek aurrera egin ahala, sofistikatu egin zaigu Maritxu, nor baino nor dotoreago, txikitoaren ordez

beste hainbat edari, kanpoko jende ugari (nahiz eta azkenaldian apur bat jeitsi ei den)... Dena den, oinarrian ez da aldatu jaiak. Aldaketa horren erakusleho gisara eta zuen gozamenarako, azken 15 urteotako argazki mordoska ondorengo orrialdeetan. On egin!

BK
ARRASATE

FOTOKOPIAK: Z/B

2.5


pta.fik
aurrera

FOTOKOPIAK: KOLOR

69

pta.fik
aurrera

Olarte, 13 • ARRASATE • Tel.: 79 79 06



1982



Jai Zale

T A B E R N A

Olarte, 37
Tel.: 79 67 92

- Bokatak
- Pintxoak
- Infusio naturalak eta...


MARTXA TOPATUKO DUZU!

Marivi



LORADENDA

Alfonso X jakintsua 5
(Grupo San Juanen) • ARRASATE
Tel.. 79 15 59 / 78 81 54

Koroak, ezkontzarako edo momentu berezietarako lore sortak.



1983



1984

Argazki denak Maritxu Kajoi Batzordeak utzitakoak dira. Jakin badakigu Maritxu aurrerakoagoa dena, baina batzordekoek ez dituzte sailkatuta gainontzeko urteak.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82





1985



PEÑAKOBA

Zarugalde, 46
Tel.Faxa: 79 29 93
ARRASATE

Lizaur arkitektoa, 7
Tel.: 78 05 60
OÑATI

BAKE EPAILEA AUKERATZEA

Bete gabe dago Arrasate herriko **BAKE EPAILE**aren kargua, eta horregatik, epe bat zabaldu da, **urriaren 10ean** amaituko dena, interesa duten eta legezko baldintzak dituzten pertsonak Arrasateko Alkatetzan idatziz eskatu dezaten.

Udaletxeko idazkaritzan aztertu ahal izango da espedientea eta behar den informazioa arakatu, bete-behar, karguaren iraupena, ordainsari, e.a.ei buruz.

ARRASATEKO UDALA **Pertsonal Saila**

EGUZKIGRAF

inprimategia

Industriaidea 1-0-4
Telefonoa: 791844
Faxa: 792944

ARETXABALETA



1986



1987



ARROGOI TABERNA

Maritxu Kajoi iritsi dira, zatorz sugana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40



OPIL
OKINDEGIA

DONIBANE

GOZOTEGIA

*Arratsaldeta
n ere ozi
beroa prest
daukazu!*

Inazio Zuloaga, 2 • Tel.: 79 80 50 • ARRASATE

BOLIÑETE

Gora **OILASKO ERRETEGIA**
Maritxu! Bertan jateko edo eramateko.

Urriaren 6tik 22ra arte oporrek direla eta itxita egongo da.

Zarugalde, 24 • ARRASATE • Tel.: 79 39 91

BAKAILOETXEA



- Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
- ISLANDIAko bakailoan espezializatua
- Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)

Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07



1988



1989



1990





1991





1992



1993





Harpidedun: berritu edo oparitu harpidetza!




Arrasatek kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatek kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **3.000 ptako** diru sarrera egin dezakezu **urriak 15a baino lehen** kontu korronte zenbaki hauetako batean:

- **KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).**
- **EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).**

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

 **79 02 26**

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE



Gida 98

Boskarren urtez, **ARKOK GIDA KOMERTZIALA** kaleratuko du bertan Leintz Bailarako telefono erabilienak eskura izan ditzazun.

GIDAn agertzeko negozio bat edukitzea nahikoa da.

Zeure datuak ondo agertzen ez badira, edo GIDari buruz zerbait esateko baduzu deitu **77 08 15** telefonora.



LASTER BISITATUKO ZAITUGU!

Laster...

**Gida
98**

Bixamonarekin batera Zaldibar txapelketa jokoan

Hiru hilabeteko etenaren ondoren, zapatu honetan berriro Zaldibar txapelketa jarriko da jokoan. Aurten 54 taldek eman dute izena, iaz baino 12 gutxiagok. Lehen fasea jokatuta ahal izateko, antolatzaileek 18 taldeko hiru multzo egin dituzte. Astebururo beraz, Zaldibarko eta Iturripeko kantxak futbitoaren lekuko bihurtuko dira.

Euria edo eguzkia, beroa edo hotza egin, izena eman duten taldeek ez dute aitzakirik izango fraka motzak eta zapatillak jarri eta baloia-ri ostikoak emateko. Txapelketari hasiera emateko ohoera Ainarexia eta Bukanak taldeek izango dute, goizeko 9etan Zaldibarren. Batek daki nola helduko diren!

Urriak 4, Larunbata

Zaldibar

- 8.50 Ainarexia - Bukanak
- 10.00 Sokoakoak - Babajana Sexy
- 11.00 Orlando Piratas - Lautherbrunen
- 12.00 Pipwhis - KKjauri
- 13.00 Borronck Roll - Naranja Mekanika
- 14.00 Nuevo Taberna - Garaje oscar
- 15.00 Totem - Iluna Taberna
- 16.00 Komando alpargat - Irati STS
- 17.00 Txontxongilo - Aurrera Bolie
- 18.00 Epeh - Betrayer
- 19.00 Los Heredia - Insert Coin

Iturripe A

- 13.00 Oñaniereng - Argi Ibili
- 14.00 Pepelus - Jey Holigans
- 15.00 Aldapa taberna - Etxe Mobil
- 16.00 AC Surcos - Cartonajes Igamo
- 17.00 Joka al rey - Zotz
- 18.00 Makai - Elisabeth

Iturripe B


- 13.00 RR tamagotxi - Potrosorri
- 14.00 Leya - Branka taberna
- 15.00 Arrogoi taberna - DKB
- 16.00 Koka Juniors - Kamasutra
- 17.00 Ke Oxtias - Jotakabau
- 18.00 Nationale Nederlanden - AT Celaya

Urriak 5, Igandea

Zaldibar


- 9.50 Gabelas - Nacex
- 11.00 Fraguél Gol - D. A Iritzut
- 12.00 Lorategi - Txeyenex
- 13.00 Rotor de Bolbogrado - Sobredosis de claro

SASKIBALOIA Garaipena, zer hobeto!



Arrasate saskibaloia taldeak ezin hobeto hasi du 97-98 denboraldia, zapatuan Logroñoko San Bernabé taldeari 87 eta 77 irabaziz. Baina beharbada garrantzitsuena taldeak erakutsi zuen oreka eta konzentrazioa izan zen. Badirudi Iker Zubiriak bloke polita lortu duela, izar handi barik lan egiteko gertu dagoen taldea. Denadela oraindik neurketa bakarra jokatu dute eta goiz da balorzioak egiteko. Datorren zapatuan bigarren partidu izango dute Donostian: Pio Baroja kiroldegian arratsaldeko 6etan Larramendi-Arrasate. Larramendik multzoko faboritoen bazegoen ere, lehen ihardunaldian galdu egin zuen.

ESKUBALOIA Oraindik hobetu beharra



Arrasate eskubaloia taldeak ez zuen maila erakutsi lehen partidu ofizialean. Jesus Mari Herrerok gidatzen duen talde gazteari oraindik hobetzeko gauza dextente falta zaio. Aurrean eta atzean sendotasuna lortzeaz gain, jokalariek irabazteko gauza direla sinestuta behar dute, konfidantza euren gan izan. Hori lortzen denean erabat aldatuko da talde honen itxura. Konfidantza eta esperientzia hartzeko partiduak jokatu behar direla esaten da, eta denboraldiko bigarrena datorren domekan izango dute Iturripen, eguerdiko 12etan. Arrasatek Bilboko Escolapios taldearen bisita jasoko du. Jarraitzaileen aurrean lehen partidua izanda, zer hobeto puntuak lortzea baino!

FUTBOLA Batzutan bai, beste batzutan ez



Konfidantzaz eta garaipena eskuratzeko kemenaz joan zen Mondra Pasaiara, baina bertako taldeak ondo ez jokatu arren gol bateko aldeaz irabazi egin zuen. Irabazi eta 9 jokalariz bigarren zatiko 20. minututik. Horrek Arrasateko taldeak zapatuan izan zuen ahulezia erakusten du. Hiru puntuak lortu ez, eta arrasatearrak 2. postutik 8.era jeitsi dira. Laugarren ihardunaldia jokatu denean Aretxabaleta-ko UDA taldearekin parekatuta daude 7 punturekin. Datorren domekan Atxabalpe izango du eszenatoki Mondrak arratsaldeko 5etan. Aurrean izango den aurkaria Beti Gazte, sailkapeneko zuloan dagoen taldea.

FUTBOLA Jipoi galanta



Jipoi, hori da Mondrako emakumezko taldeak Oiartzunen kontra jaso zuena. Arrasatearrak 6 eta 0 galdu zuten. Mondra lekuz kanpo egon zen, ideia barik eta atera begira txarto. Erakutsitako itxura kaxkarra hobetzeko beste aukera bat domekan izango dute Bilbo taldearen kontra. Neurketa Atxabalpen jokatu-ko da, eguerdiko 12etan.

Aldi bi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Saioa Karate eskola

“Gipuzkoako eta Euskadiko talde onenak izateko borrokatuko dugu aurten”

Saioa karate eskolan karateka dexentek emango dio hasiera 97-98 denboraldiari. Guzti horietatik 30ek txapelketetan hartzen du parte; besteek hobby moduan dute karatea egitea.

Eskolan 5 urtetik 48 urtera arteko kirolariak ikus badaitezke ere, txapelketetan 9 urtekoak izaten dira gazteenak. Iñaki Muñoz entrenatzailearen berbetan adin txikiagoarekin ez da komeni txapelketan ibiltzea, porrotak eta garaipenak direla eta, lehia eta tentsio handia sortu daitezkeelako. Beraz 9 urte gazteenak eta 30 zaharrenak. Entrenatzaile bera da lehia-kide zaharrena.

Karatea maila eta gerriko desberdinetan banatzen da. Txapelketetan parte hartzeko gutxienez gerriko urdina behar da. Maila txikiagoa duten karaketentzat promoziozko probak antolatzen dira, urteko lana baloratzeko.

AURTEN HELBURUAK

Saioa karate eskolan 18 urtetik 22 urtera arte harrobi sendoa dagoela dio Iñakik. Bi karateka Erik Martin eta Isidor Ugarte, esatebaterako, Euskadiko selekzion daude eta baita Iñaki Muñoz ere; nahiz eta aurtengoa Iñakientzat goi mailan lehiatzen den azkena izan.

Aurten Saioakoek senior mailako talde sendoa osatzeko asmoa dute. Erik Martinek, Iker Vitoriak, Iker Zabartek, Isidor Ugartek, Jose Manuel Petitek eta Iñaki Muñozek osatutako taldea Gipuzkoako txapelketan



Saioa eskolako karateka gazteek eta helduek astean zehar entrenatzen dute. Batzuek arratsaldetan eta besteek ilunkadetan.

lehen postua lortzen saiatuko da eta Euskadi mailan lehenengo lauren artean sailkatzeko egingo du borroka. Azken helburu hori lortzea ez da erronka samurra izango, batez ere Gasteizen eta Bilbon dagoen maila kontuan hartuta.

Jubenilek ere onenak izateko egingo dute lan. Maila honetan, Erik Martin eta Iker Zabarte dira promesa handienak, ahaztu barik emakumeetan Patricia Morales. Aurreko denboraldian Erik Gipuzkoako

eta Euskadiko txapelduna izan zen eta estatuko txapelketan zorte handirik izan ez arren, aurten onenen artean toki bat lortzen ahalegingo da. Patricia iaz Euskadikoan txapeldun ordea izan zen.

Infantiletan emakume karateketan jarri du konfiantza osoa entrenatzaileak. Amaia Ormaetxea, Laida Ramos, Marta Tijero, Naiara Arkautz eta Estitxu Ugarte arretaz jarraitu beharreko karatekak izan daitezke.

Aipatutakoek gain, beste

helburu bat gerrikoen graduazioa aldatzea. Urte honetarako gauzak ondo badoaz, bost gerriko marroi beltz bihurtuko dira. Gerrikoz aldatu behar dutenen artean 41 urteko bi gizon daude. Gaztetxoek ere mailaz aldatzeko aukera izango dute. Gainera aurten graduazio azterketa Arrasaten egin ahal izango da, Muñozek iaztik estatu mailako entrenatzaile titulua duelako.

ENTRENAMENDUAK

Irailen hasi ziren entrenamenduak Arrasateko karatekendako. Hilabete honetan batez ere fisikoa landu dute, baina hemendik aurrera teknikari eskaini behar denbora gehiago. Jubenilek abendurako sasoi sasoi egon behar dute, orduan Euskadiko txapelketa jokatu da eta. Txapelketa garrantzitsu horren gunea Arrasate izango da, abenduaren 14an. Seniorren denboraldi gogorra otsailean hasiko denez, oraindik lasai hartuko dituzte entrenamenduak.

Gaztetxoek berriz urriaren 12an izango dute denboraldiko lehen proba Errendarian. 14 urtetik gorakoak Gipuzkoako promozio txapelketan izango dira.

Arrasateko karatekek kementsu helduko diote aurtengoari. Herriaren izena ahalik eta urrutien eramaten saiatuko dira baina era berean eurek Arrasateko herritarren babes eta laguntza guztia nahi dute, urtean zehar egindako lanak eta esfortzuak behar besteko onarpena izan dezan.

Bad f-Line

Musikaren bide berriak urratzen

Kritika musikalak oso ondo hartu du Arrasateko laukote berri honen lehenbiziko lana. Guztietan aipatzen da *musika industrial*a, baina beraiek nahiago dute musika kooperatiboa egiten dutela esatea. On Jose Maria da beraien inspirazio iturrietako bat; kanta bat eskaini diote diskoan, baina ez espero bere aldeko ezer entzutea, guztiz kontrakoa baizik ("Suntsitzen zaitut nire izerdiz..."). Badaukate gertuko beste musa bat: Leopoldo M. Panero. Bai Panero eta bai Burroughs, mesanotxean izan ohi dituzten autoreak dira.

Bad f-Line ez da ohiko talde bat. Ez da euskal rocka. Ohikotik alde egiteko helburuarekin jaio dira. *Shot!* grabaketa estudioan bildu eta teknologia erabiltzen dute musika joera ezberdinetatik edan eta koktel berria sortzeko. "Euskadiri orain artean

inoiz izan ez duen proposamena eskaini nahi izan diogu. Estilo honetan Euskal Herrian kaleratzen den lehenbiziko produktoa da" esan du Iñaki Bengoak. "Badago hemengo talde bat, hori bai, gugan eragin berezia izan duena: Parafunk. Beti erabiltzen dugu bere


musika gure kontzertuen aurreko minutuetan."

GUZTIA DA EZOHIKOA

Ezohiko musika, sintetizagailu eta sampler-ak kitarra zorrotzekin uztartuz; edozelan ere, emaitza gogorra da. Ezohiko formatoa, konpaktoak bost

kanta besterik ez dauzka eta (ez dira iraupen luzeen aldekoak musika estilo honetan). Eta zuzeneko emanaldiak ere, ezohikoak. Isilunerik gabeko 45 minutu, pregrabatutako zati ugari erabiliz. Taula gainean ez dago ez bateriarik, ez bajurik. Bakarrik gitarra basati bat, bi sintetizagailu, esperientziak emandako jakituria, eta indar handia. Talde berria izan arren, partaideak landutako musikariak dira eta lehenbiziko emanaldietan lortutako kohesioak konbentzitu egin ditu bertaratutakoak.

Bad f-Line taldearen diskoa *Où* disketxe arrasatearraren bigarren emaitza da, lehena RIP-en bertsioena izan zen. Arrasateko disketxearen hurrengo produkzioa *Daisy Cutters* taldearen lehen diskoa izango da. Talde honek Euskadiko talderik onenaren saria jaso du Villa de Bilbao lehiaketaren azken edizioan.





MIREN GARAIren zentru mediku-estetikoak **Peeling-gaztetze-tratamendu berria** martxan jarri dela jakinarazi nahi dizue.

Horretaz gain:

- Gehiegizko pisuaren tratamendua dieta pertsonalizatuekin.
- Barize tratamendua.
- Zirugia estetikoak (bularren handitze edo txikitzea, liposukzioa, eta abar.)

Ramon Aginaga doktoreak eginak.

Eta, era guztietako tratamendu estetikoak: depilazioa, aupegiko azalaren garbiketa, depilazio elektrikoa (betirakoa) Blenz sistemarekin, etab.

MIREN GARAIEN ESTETIKA ZENTRUA

Zarugalde kalea, 23.zkia. 2.ezk. • 79 96 90

HIES
EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

ZUK NAHI
Taberna
Pintxo goxoak
giro onenean!
Erdiko kale ARRASATE
Tel.: 79 79 26

Haurdun bazaude
LAURA da zure
 jantzidenda.

Udaberriko moda
 gaztea jazteko neurria
 ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko Kale, 30
 Tel.: 79 05 80
ARRASATE

Kirol denda berria



**GURE
 ZOZKETAN
 PARTE HARTU!**

Puntu markatutako marrik moztu kupoia gure dendan
 utzi eta zozketan parte hartuko duzu:


- Wave Rebel Tamega-Pro Body board,
 3 bider munduko irabazle izandako
 Guilherme Tamegak sinatuta,
- 50.000 pta.tako erosketa bale batekin batera

Izena:.....
 Abizenak:.....
 Helbidea:.....
 K.P.:..... Herria:.....
 Telefonoa:.....

Jrekiera
 eskaintza
 berezia!



Zerkaosteta, 15
 Arrasate



ABENTURAREN BILA!

“MUGARIK GABEKO GAZTEAK” VIII. ARGAZKI LEHIAKETA


2 KATEGORIA

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak
- B) 19-35 urte bitarteko edozein.

SARIAK

- A) kategoria
 - 1) 20.000 pzta
 - 2) 15.000 pzta
- B) kategoria
 - zuribeltzean 1) 50.000 pzta.
 - 2) 35.000 pzta.
 - koloretan 1) 50.000 pzta.
 - 2) 35.000 pzta.

Emakume sailaren sari berezia: 40.000 pta.



Juan Jesus Huelva

Lanak aurkezteko
epea: **URRIAK 10**



ARRASATEKO UDALA

- Gazteria Saila ■
- Emakume Saila ■
-

■ Enrike Arana

TXIKITERO ILUSTRATUA



Enriketo deitzen dute, Arrasaten gaitzizenik gabe apenas dagoelako inor. Hitz egitea gustoko du, baina batez ere, entzutea. Gustora dabil solasaldi luze, patxadatsu eta sakonetan. Bere jardunean bi ohitura aldarrikatzen ditu: Irakurzaletasuna, non gauden jabetzeko, eta txikiteoa, harreman sozialetarako.

1. Zein da zure horoskopoa? Kantzerra.
2. Sinestuna zara? Pertsonengan sinesten dut, ez mitoengan.
3. Animalia bihurtzekotan? Kurloia.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Harrokeria/Memoria falta.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Egi batetik geuzurra ateratzeak.
6. Amets bat? Ez daukat ametsik.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gezurra.
8. Gertakizun historiko bat? Beethovenen IX. sinfoniaren estreinaldia.
9. Nor miresten duzu? Peñafloidako kontea.
10. Zeri diozu beldurra? Komunikabideei.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Arantzarroi "Negarmusu" esaten digute.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Duintasuna.
14. Eta zuri? Ezer ez.
15. Lanbidez aldatzekotan? Errekazain.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Alde zaharra.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Kubara joatea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Egin.
19. Gustoko janari bat? Arraultzak.
20. Liburu on bat? "Cómo nos venden la moto", Noam Chomskirena.
21. Filmerik onena/txarrena? Estatu Batuetako 50. hamarkadako zine beltza/Gaur egungo filme amerikarrak.
22. Musika talderik onena/txarrena? Guridi/Yankilandia.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? ATBko edozein/Telesailak.
24. Egin dizuten oparirik politena? Lore bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Txikiteoan eta irakurtzen.
26. Oporretarako toki bat? Arrasate.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Zaborra jeistea.
28. Gomendio bat? Entzun. Jendeari entzun.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Herriagatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Zer duk hori?

LEBER

GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosien bitarteko aholkularitza.
- Area ezberdinen errefortzua-berreskurapena (hizkuntza, arazoiketa,...)
- Eskolako edozein zailtasunerako laguntza.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ordutegia: 15.30etatik 19.30etara.

Basabe Poligonoa (Industrialdea)
ARETXABALETA • Tel: 79 56 98

LENIZ

Garagardotegia

AUPA

MARITXU KAJOI!

Iturriotz, 8

Tel.: 79 22 29 ARRASATE



MIRIAM URKIA (EUSKAL FILOLOGIAN DOKTOREA, CUM LAUDE)

“Ordenagailuak euskara

Miriam Urkia aretxabaletarra UZEIko lexikografia saileko burua da. Ia hamar urte daramatza beste hizkuntzalari eta informatikari batzurekin batera ordenagailuari euskara ulertarazteko lanean. Bidea luzea da, baina lehenbiziko etapa bete du, eta tesi doktoral forma emanda aurkeztu du Miriamek EHUren Gasteizko Filologia fakultatean. Orain Euskal Filologian doktorea da, cum laude goraipamenaz.

Azken bi urteak eskaini dizkio Miriamek “Euskal morfologiaren tratamendu informatikorantz” izeneko tesiari.

- Zer dago izenburu horren atzean? Zeren bila joan zara?

- Mende honetako euskararen bilketa egin genuenean 3 miloi hitz jaso genituen. Horiek prozesatu eta mane-jatzeko sistema informa-

tiko baten beharra ikusi genuen. Adibidez, *etxe* erroa duten hitzak 77 dira. Eta hitz batean deklinabideko bi kasu biltzen badira, adibidez *etxe*-koan, 200 konbinazio baino gehiago topatuko ditugu hitz bakoitzeko. Beste hizkuntza batzutan, hitz bat ordenagailuan sartu eta berak ematen dizu hitz horrek dituen forma guztien zerrenda, eta horietatik zein den zaharrena. Gure kezka zen euskararekin hori egiterik ez zegoela.

Bestalde, ni proiektu honetan hasi nintzenean, bazebilen hor talde bat ordenagailuentzat euskara-gaztelera itzultzaile automatiko bat eta zuzentzaile

le ortografiko bat eratu nahian. Beste hizkuntzetarako bai, baina euskararako ez zegoen horrelakorik; ordenagailuak ezin zuen euskarazko testu bat zuzendu. Eta horretara ailegatzeko, lehenbizi nik egin dudana egin beharra zegoen, analizatzaile morfologiko bat.

- Zer behar da ordenagailuari euskara irakasteko?

- Hitz bakoitzak izan ditzakeen aldagai edo forma zuzen eta oker guztiak erakutsi eta arautu egin behar zaizkio. Eta nola egiten da hori? Ba hiztegiko sarrera guztiak zerrendan jarri eta ordenagailuari deklinabidearen jokoak erakusten. Eta aditzaren

“Modako hiztegiak nabarmen markatzen du garai bakoitzeko hizkuntza. Kintanaren hiztegiaren eragina ikaragarria izan zen 80. hamarkadako testuetan”

"Lertzeko lehen urratsa da"

kasuan, beste horrenbeste.

Ordenagailua hitz bakoitzaz sortu edota aztertze gaurza izan dadila lortu nahi dugu. Nik *eros* esaten badiot, berak aterako ditu automatikoki *erosi*, *erosten*, *erosiko*, etab. Eta alderantziz, erostearren esanda, berak badaki *eros* aditza dela, eta *-tearren* atzizkia.

Azkenean, jostailu bat da. Hitzen tripa posible guztien eskema eta programa informatikoa egitea, gero edozein ordenagailutan erabili ahal izateko. Hizkuntzalari lana da, baina azken produktoa programa informatiko bat da.

- Deustuko ikasle izanda, zergatik aurkeztu duzu zure tesia EHU?

- Deustuko orientazioa oso klasikoa da. Autore klasikoak lantzen dira batez ere, eta zaila ikusten nuen bertan hau bezalako tesia onartzea. Gasteizen ere, onartuko ote zuten beldurrez ibili naiz. Kontuan

izan gai honi buruz egindako lehenbiziko doktoradutza tesia izan dela Euskal Herrian eta hizkuntzalariak eta informatikoak aritu izan garela elkarlanean lana burutzeko. Hori ez da oso ohikoa.

- Klasikoen euskara zuzena al zen beti?

- Beraiengandik edan dugu, eta ontzat ematen dira. Klasikoen artean Axular beti oso eredu ona izan da. Gaurko euskara, aldiz, asko kritikatzen da. Euskaltzaindian jaramon handiagoa egiten zaio autore klasiko bati gaur egun-

go bati baino.

Modako hiztegiak ere nabarmen markatzen du garai bakoitzeko hizkuntza. Kintanaren hiztegiaren eragina ikaragarria izan zen 80. hamarkadako testuetan, bertatik hartutako lexikoa erabiltzen zen. Orain Ibon Sarasolaren hiztegiak markatzen du joera.

- Zein erabilera izango du zure lanak?


- Alde batetik guk sortutako datu base lexikala hor dago. Bestalde, egindako lan honen lehenbiziko emaitza Xuxen zuzentzaile ortografikoa izan

da. Oso motela da oraindik, baina asko erabiltzen da. Eta guretzat praktikoena, orain artean eskuz landu ditugun 3 milioi hitz horiek ordenagailuz maneja ahal izango ditugula aurrerantz.

Hau hasiera bat da, ez lehenburu bat. Beste lan asko egiteko lehenbiziko fase bat izan da. Hor dago Xuxen zuzentzailea, itzulpen automatikoa lantzen hasteko ere beharrezkoa zen, eta LEIA proiektuan dabilzaneke ere eskatu digute lan hau euren erabili ahal izateko. LEIA proiektuaren helburua epe luzean, ordenagailuarekin gu hitzez komunikatu ahal izatea da. Horretarako ordenagailuari euskara erakutsi behar zaio eta hori lortzeko bidean ere lehenbiziko pausu hau eman beharra zegoen.

Nik hasitako lan honen jarraipena izango den tesia martxan dago honezkero. Oraingoan azterketa sintaktikoa egongo da. ■

"Lan honen lehenbiziko emaitza Xuxen zuzentzaile ortografikoa izan da. Oso motela da oraindik, baina asko erabiltzen da"



Clark's

Yoar oinetakoak

Biteri, 13
Tel.: 79 21 71
ARRASATE

Barrenkale, 9
Tel.: 76 22 86
BERGARA



MENDIZABAL OKINDEGIA

Maritxu ostein, ogia labetik atera berria zuretzat Mendizabal Okindegian.

Maritxu ostein, eguneko ogia, goxoago irudituko zaizu.

Sebero Altube, 2 • Tel. : 79 89 60 ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Osintxun pisua salgai. 75 m². Tel.: 76 36 61. Arratsaldez.

• Bizkaia etorbidean 85 m²ko etxebizitza salgai. Hirugarren solairua. Tel.: 79 22 92.

• Erdialdean pisua salgai. Erdi jantzita 90 m². Ganbara eta garajearekin. Tel.: 79 42 13.

• Oñatiko alde zaharrean 3 solairuko etxea salgai. Ortu txiki bat dauka. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1 eta 2tik aurrera.

3. Errentan emateko

• Uribe auzoan pisua alokagai. Hiru logela, bi komun, saloia eta sukaldea. Tel.: (945) 13 29 08.

• Pisua alokagai San Andresen. Tel.: 79 51 88.

• Erdialdean etxe bat alokatzen da. Jantzita dago. Tel.: 79 08 92.

4. Errentan hartzeko

• Gasteizen etxebizitza alokatzeko lagun baten bila nabil. Tel.: 79 57 31.

5. Etxe konpartituak

• Bi ikaslek hirugarren bat behar dugu Erguinen pisua osatzeko. Hilero 20.000 pta. Tel.: (94) 491 26 17 edo (94) 491 06 69.

• Lagun bat behar da Bilbon pisua osatzeko. Tel.: 98 547 27 79 edo (94) 441 77 21. Monse.

• Pisua konpartitzeko 3 edo 4 ikasle behar ditugu Eskola inguruan. Tel.: (94) 447 32 99.

• Bilbon, Santutxu kalean gelak alokatzen dira. Tel.: (94) 433 80 81. Maribel. Gauez.

• Bakarrik bizi den emakume batek etxea konpartituko luke San Andres auzoan. Tel.: 79 15 96.

• Arrasaten gela bat alokatzen da. Tel.: 79 98 70. Aste barruan, gauez.

• Donostiako alde zaharrean pisua osatzeko neska bat behar dugu. Tel.: 79 00 13. Celina.

• Bilboko La Casilla ondoan pisua osatzeko bi pertsona behar dira. Tel.: 79 19 06 goizez edo (94) 421 00 95 arratsaldeko 6etatik aurrera.

• Donostian etxe konpartitu batean

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otorala Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

sartuko nintzateke. Tel.: 79 49 30.

GARAJEAK

7. Saldu

• Erguin kalean garajea prezio onean salgai. Tel.: 79 18 70.

• Roneoko etxeetan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Garajea alokagai Zarugalden. Tel.: 79 23 06.

10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

LOKALAK

12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m²ko lokala salgai. Tel.: 79 07 24

14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48 zenbakian edozein negozio jartzeko proposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Janari denda errentan eman nahi dut. Tel.: 79 92 84.

• Deban taberna bat eskuz aldatzen da. Martxan dago. Bezero onak ditu. Orain dela gutxi berrituta. Tel.: 19 19 54.

LANA

17. Eskaintzak

• Esperientziadun ileapaintzailea lan egiteko prest. Manikura, pedikura, depilazioa. Diplomaduna. *Pivot point* tituloduna. Tel.: 79 03 94.

• Emakumea gertu etxeak, bulegoak edo eskailerak garbitzeko. Tel.: 79 80 96.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 42 03. Maite.

• Orduka lan egingo nuke. Tel.: 79 37 68.

• Esperientziadun neska pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 31 44. Gauez. Mariam.

• Ilea-paintzaile tituloduna gertu ilea-paindegietan lan egiteko. Tel.: 79 75 55.

18. Eskaerak

• Bi ume zaintzeko emakumea behar da. Tel.: 77 00 19.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Autoa beharrezkoa da. Tel.: 908 77 53 14 edo 77 01 73.

• Mutila behar da garraiolari laguntzaile bezala lan egiteko. Tel.: 907 70 20 46. Koldo.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko 40 urte inguruko emakumea behar da. Tel.: 79 12 73. Gaueko 8etatik 10era.

• Multimedia sektoreko elkarteak komertziala behar du. Interesatek autoa izan beharko dute. Informatika eta multimedien ezagutzak behar dira. Tel.: 71 20 30. eta 929-41 59 43.

• Multimedia sektoreko elkarteak bazkidea behar du. Ezagutza eta esperientzia frogagarriak eskatuko dira. Tel.: 71 20 30. eta 929 41 59 43.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Esperientziadun neska klase partikularrek emateko gertu. Euskaraz nahiz erdaraz. Tel.: 79 28 61.

• Magisteritza daukat eta klase partikularrek emango nitzuke Musakolan. Tel.: 79 35 24.

• OHO, DBH etea beste zenbait ikasgaietako klase partikularrek ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

• Irakasle tituloduna eskola partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 94 04.

• Euskararen 2. urratsa emango dut ordubetatik 3etara. Ordubeteko saioak. Tel.: 77 04 98.

• ESO eta LOGSEko klase partikularrek ematen dira. Esperientziaduna. Talde txikiak. Tel.: 79 56 78.

• Alemanezko eta portugesezko klase partikularrek ematen dira. Maila

guztiak. Tel.: 71 63 05. Eguerdiko 1etatik aurrera.

MOTORRA

23. Saldu

- Gaciva Mito motorra salgai. 125 cc. Beltza. Prezioa: 275.000 pta. Tel.: 907 94 29 24.
- Yamaha Jog motorra salgai. Prezioa: 70.000 pta. Tel.: 79 25 73. Ibon.
- Yamaha FZR 600 salgai. 28.000 km. Oso egoera onean. 400.000 pta. Tel.: 79 65 88. Rober.
- Golf GTI-rako porta eskiak salgai. Kateak oparituko ditut. Tel.: 79 86 33.
- BMW K-100 RS 16 V, ABS motorra salgai. Tel.: 79 86 33.

DENETARIK

26. Saldu

- Emilio Tucci-ren frak bat salgai dut. Egoera onean dago. Tel.: 79 14 64. Gaueko

9etatik aurrera.

- Larrabea Golf Klubaren 3 akzio saltzen ditut etxe aldaketagatik. Prezio interesgarria. Tel.: (945) 14 35 69.

- Gasoleozko berogailua salgai. Prezioa: 25.000 pta. Egoera ona. 500 litroko depositoa. Tel.: 77 04 61.

- Vitus bizikleta salgai. Tel.: 76 08 21.

- Zero Sette soinu txikia salgai (4 ahots). Berria. 169.000 pta. Tel.: (945) 27 44 26.

- Kastle eski berriak salgai. 1,90 m. Salomon fijazioekin (7 seriekoak) eta eskiatzeko botak (46 eta 37 zenbakikoak) salgai. Tel.: 79 86 33.

- Ordenagailua salgai prezio onean. Tel.: 79 14 71.

- 1. eta 2. batxilerga teknologikoko euskarazko liburuak erdi prezioan saltzen dira. Tel.: 79 71 25.

- Super Nintendo salgai. Laujoku ditut. Tel.: 79 23 35 edo asteburuetan 13 17 28. Mikel.

27. Erosi

- Lanean ikasitako ardi txakurra erosiko nuke. Tel.: 71 49 73. Alberto.
- Gasoleozko berogailua erosiko nuke.

Tel.: 79 37 14. Gaueko 8etatik aurrera.

30. Hartu

- Aretxabaletako profesionalean erizain laguntzailerako ikasi baduzu eta liburuak soberan badituzu nik gustorara hartuko nituzke. Tel.: 79 68 71.

- Zure hozkailu zaharra bota behar baduzu gu pasatuko gara jasotzen. Tel.: 79 65 31. Maite.

- Oso behartuta dagoen familia batek butanozko sukaldea eta hozkailu bat behar du. Tel.: 79 37 68.

31. Galdu

- Urrezko kate bat galdu nuen Erguin edo Eskola inguruan. Tel.: 71 20 72. Dorleta.

- Zapatuan Biteriko kolunpioetan 7.45 eta 8.30ak bitartean karteratxo more bat galdu nuen. Barruan urrezko zigilua zegoen (95-05-07) jaunaritzen data grabatuta zeukala. Tel.: 79 09 09.

- San Andres geltoki ondoko kabinan egurrezko mangoa duen euritakoa ahaztuta utzi nuen. Sekulako ballo sentimentalak du. Sarituko da bueltatzea. Tel.: 77 05 65.

- Akelarre gozotegjaren inguruan estutxa galdu nuen. Saritu egingo da. Tel.: 79 10 40. Sara.

32. Aurkitu

- Peugeot gorri bat BI matrikuladuna, ostiralean, irailaren 12an, gaueko 10.30ak inguruan lau gazte autostop ez hartu eta bertan giltzak ahaztu zituzten. Gazteak Elorriorako jaietara zihozten. Giltzak Udaltzaingoa utzi ditut.

- Ordulari bat aurkitu nuen Munarreko zubian. Pultseraduna da. Tel.: 79 08 04.

HARREMANAK

34. Agurrak

- Epo. Animal Bizitza ez da hemen amaitzen, nahiz eta guri hori iruditu. Ez ahaztu denboraren poderioz ideiaz aldatu dezake. Maite zaitut. MML.

35. Kontaktuak

- Zumarragara egunero kotxez doan norbaitekin harremanetan jartzea nahi dut. Tel.: 79 98 24. Karlos. Eguerditan.



DEMOKRAZIA EUSKAL HERRIARENTZAT

Askatasuna

MANIFESTAZIOA ARRASATEN

URRIAK 6, ASTELEHENA • ARRATSALDEKO 7etan Seberon

HERRI BATASUNA





URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak


- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE

Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Astelehenetik aurrera neguko programazioa

ATBko aurpegiak



Patxi Montero
Albistegiak



Itxaro Zubillaga
Kirolak



Eneko Allende
Burua astinduz



Maier Uranga eta Suar Aizpuru
Lotsa barik



Betirtze Iñurritegi eta Unai Iparragirre
Kukaratxa Motel



Alazne Ruiz de Munain
Kukaratxa Moteleko azken fitxajea



Beñardo Kortabarria
Tertulixan



Maria Agirre
Munduari bueltaka

ASTELEHENA, 6	ASTEARTEA, 7	ASTEAZKENA, 8	OSTEGUNA, 9	OSTIRALA, 10	LARUNBATA, 11
<p>20:00/20:30/21:00 Berriak. <i>Patxi Montero.</i></p> <p>21:30 Mondrasport. <i>Itxaro Zubillaga.</i> Asteburuko kirol jardueraren analisia, gonbidatuak, kirol tertulia,... eta lehiaketa astelehenero.</p>	<p>13:30 Mondrasport (Errepikapena)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Burua astinduz. <i>Eneko Allende.</i> Gaur egungo musika, talde lokalak, elkarrizketak, azken kontzertuetako grabaketak.</p>	<p>13:30 Burua astinduz (Errepik.)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Munduari bueltaka. <i>Maria Agirre.</i> Gaurkoan, Akonkaguara joango gara Joseba Ugalde donostiarren eskutik.</p>	<p>13:30 Munduari bueltaka (Errepik.)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Kukaratxa Motel. <i>Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin.</i> Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua: Karaokea, play-back, froga dibertigarriak eta... sorpresak.</p>	<p>13:30 Kukaratxa Motel (Errepik.)</p> <p>20:00/20:30/21:00 Berriak.</p> <p>21:30 Astebete. <i>Patxi Montero.</i> Astelehenero jasotako berrien errebaso eta sakontzea.</p>	<p>Astelehenero eskainitako programa interesgarriena errepikapena</p> <p>13:30 Kukaratxa Motel</p> <p>14:15 Astebete</p> <p>14:45 Burua astinduz</p>

**Maritxu
Kajoiko
martxa
ederrean!**



TAKOLO AUTOAK

Araba etorbidea, 3
(ESKATU pabilioia)
ARRASATE
Tel.: 79 05 86



A R B A

**SUKALDE ETA
DEKORAZIO
PROIEKTUAK**

Juanita Arana

Mondragones kalea, 9 (Azoka ondoan)
ARRASATE • Tel./Faxa: 77 07 50

Hasieratik kalitatea




SUKALDEAK eta ELEKTRATRESNAK

Miele

ALTZARITAN ESKLUSIBITATEA BAILARAN

sofa
leku

a, eme... interiores



STOKKE

centro
hogar
muebles



grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92